



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Garraio Partzuergoa

«Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen Zerga-Ordenantza» ren aldaketaren behin betiko onespeneren iragarkia.

«Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei Bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateagatiko Tasak arautzen dituen Zerga-Ordenantza»-ren aldatzeko hasierako onspena, 2025ko maiatzaren 22ko 96. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, espedientea jendaurrean egon da hogeita hamar (30) eguneko epean eta epe horretan ez da behin-behineko onarpenaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu.

Hori dela eta, jakinarazten da hasierako onarpena behin betiko bihurtu dela, eta jarraian behin betiko onartutako Ordenantza horri erantsitako aldaketen testua argitaratzen da.

Bilbon, 2025eko uztailaren 4an.—Zuzendari Nagusia, Roberto Muñoz García

**BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN TITULUEN ERABILTZAILEEI
BIDAIARI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASAK
ARAUTZEN DITUEN ZERGA-ORDENANTZA****2. artikulua. — *Subjektu Pasiboak***

Tasaren subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan aipatzen diren entitateak eta pertsona fisiko zein juridikoak, ordenantza honek arautzen duen zerbitzua eskatzen badute, edo zerbitzu horren onura edo eragina jasotzen badute.

Aurrekoa gorabehera, Horretara loturik baina bidaia-txartela aldean eroan beharrik ez dabe izango BFA-n desgaitasuneta mendekotasun-egoerearen autortzea daukien pertsonen laguntzaileek, beti be lagundutakoek baldintza honeek beteten baditue:

1. %45eko edo hortik gorako desgaitasun-mailea, eta
2. Autortutako mendekotasun-mailea (I, II edo III).

Baldintza biak bete behar dira.

Salbuetsita geratu ahal izateko, eskaerea berariaz egin behar da. Eskaera Bizkaiko garraio publikoko Bezeroarentzako Arreta Bulego integraletan (BAB) aurkeztu beharko da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoa betez, zeinak xedatzen baitu interesdunek esku-bidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, interesdunak aurka egin ezean, elektronikoki kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu eskaera kudeatzeko beharrezkoak diren datuak eta dokumentuak, datuen bitartekaritza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez, eta, bereziki, %45eko edo gehiagoko desgaitasun-maila eta aitortutako mendekotasun-maila (I. II. edo III. maila) aitortzeari buruzko betekizuna betetzen dela egiaztatzeko.